


Hiltzeko tresnerixie hurran



Kakue eskuen, prest



Dies, ez da makala, mutillak!



Odolusten



Leheng bo

**"Argittu orduko illune,
txarrixie hiltzeko egune"
esaten eben lehenako
mallabittarrak eta halantxek
izan be: gehixenguetan
Gabon aurreko astien
hiltzen zan txarrixori,
jaixetan okela freskue
euki ahal izateko.
Akorduen
eukitzeko egune
izaten zan txarrixie
hil eta haren
osteko txarri
bodie. Handitxik
urtetzen eban
urte guztirako
okeliek.**

Jaixegun baten besteko egun seiña-
laue zan, auzoko eta etxeko danak
goixien hasitte eta illuntzerarte
batzen zittuena. Gizonena bazan hiltze,
odolustu eta zehetziaren kargue, andrak
arduraten zien ezteiek errekan garbittu



EKIN

ESKOLAKO MATERIALEA.....

KOPIAK KOLOREZ

FAX PUBLIKOA.....

• Goienkale, z/g
• Tlf. 17 20 08

OUTUMURO KAFETEGIA

- Kafe bereziak
- Aukera handia TE eta INFUSIOETAN
- Tarta bereziak

• Astelehenetik ostiralera 9etan
zabaltzen dugu

o txarri dak

eta odolostiek aguro-aguro eittiaz. Goixerdixen baiña, eten-txo bat eiñ eta mahaire etaten eben prikidutako gibelan kopoutxue, politto irunzten zan kontizu; etxerako hazittako txarrixan gibela baiño gauza fiñagorik!

Txarrixen izaten zan etxeko ganauen artien estimauene-takue, mimo itzelaz zaintzen zan hurrengo urtien okelaz hornidu deizezen etxe eta ingurukuek. Eskerrak apatxak ez beste danak aprobetxatzen jakozela, ze erralde gehixao edo gitxiaokue izan, makiñatxo bat txatal iñondako etara bihar izaten jakozen: betenarixuai analizatzeko emoten jakon zati bat; odoloste, sahieski, urdai eta solomo beste bana azaorrixetan batu-batu eiñ eta herriko mediku, abade eta maixu-maistrei eruten jakuen. Ohitturie zan baitte senide eta auzoko hurrenekuekin akordue eukittie, haren etxe-ko txarrixan odoloste eiñbarri gozuek goixao edo beranduo eureana bueltan etorriko zien eta, trukien. Partiziñuena biharleku itzela izatiaz gain, ondo neurtu biharrekua izaten zan: hartu-emonetarako larregi gorde ezkerro, etxeko arreglorako hain barik geratu; bialdutako generua urrixen begintantzen bajakon bateron bati, zekenan famie hartu norberak. Nork asmau! Azkenien, kanporako patrifilio danak eiñda gero, etxerako okeliaz gatza botatzen jakon kutxan gorde aurretik, luzeruan iraun eraitteko.

Txarri bodiana egun guztikue izaten zan: hurreratuko danak bapo-bapo bazkaldu, kontu mordue esan alkarri eta beheko suaren epeltasunien konbidau egun aparta pasatzen eben. Pare bat astera, sikatzen txintxilike ipiñittako txorizo kordak jantziko eben tetxue eta pernilla be hantxe... baiña lar aurreratu barik hartu deiguzen gauzak patxaraz. Lagunak, jan deiguzen jan odoloste eiñbarri eta solomo freskuok, zeozegaittik diño eta esakera zaharrak:

“ezkondutako astie eta txarrixen hildako astie onenak ei die”.

*Erretratuek: Asier Ibaibarriaga eta Santos Vega
Idatziek: Estibalitz González*

Azpigarriz tapau eta erretzen



Txarrixen txarrix txarrixaz baltzittutakue garbitzen



Erdibittu eta tripak usten



Odolostiek prestatzen. Uhm... egongo da nork jan



SABIN URKIZU HARATEGIA

✱ **Euskal Herriko
okela zaporetsua**

Diputazio 3, behea

☎ 943 17 36 48



LEIRE MAYORA

PODOLOGOA

San Pelaio 8C, behea
48260 Ermua

☎ 943 17 47 44